Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko apirilaren 23a, asteartea — 78 — Martes, a 23 de abril de 2024



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoa Quantum programako dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta 2024ko deialdia onestea.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2024ko apirilaren 9an:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 aldirako plan estrategiko berrian jasotako jardueraren funtsezko zutabeetako bat ekonomia berritzaile eta lehiakorra sustatzea da, aukerak sortuko dituena, kalitatezko lanpostuak bermatuko dituena eta etorkizuneko industria-sektoreak garatuko dituena. Negozio berriak osatuko dituzten eta etorkizunean lehiakorrak izan daitezen gaurko enpresetan integratuko diren teknologia batzuk lehen urratsak ematen ari dira orain. Hori da teknologia kuantikoen kasua, hasiberriak, baina potentzial handia dute eremu eta sektore askotan. Esparru horretan kokatzen da Gipuzkoa teknologia kuantikoen polo bihurtzeko erronka, eta horrek esan nahi du ezagutza sortu behar dela, abangoardian egotea ahalbidetzen duten azpiegiturak eduki behar direla, teknologia hasiberriek dakartzaten zailtasunei aurre egiteko gai diren pertsonak izan behar direla eta ekintzaileak edo enpresak izan behar direla horiek errentagarri bihurtzeko lanean.

Bide horretan aurrera egin da azken urteotan. 2021eko irailean, jarduera-protokolo bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzarekin, Donostian Teknologia Kuantikoen Poloa sustatzeko, eta urte horretan bertan, planteatutako helbururantz aurrera egiteko estrategia bat definitu zen, eta ikerketa-proiektuak babestu ziren. 2022an beste urrats bat egin zen, teknologia horiek enpresa-ehunera iristea sustatuz. Helburu nagusi horrekin jarri zen abian Gipuzkoa Quantum programa, enpresen edo enpresetako I+G unitateen I+G proiektuak laguntzera bideratua, teknologia kuantikoetan aditua den erakunde batekin lankidetzan. Gainera, aurrekontuak ahalbidetzen bazuen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) zentroek egindako banakako proiektuak aurkezteko aukera ireki zen. 2023an, kuantikan adituak diren zentro eta erakunde horien arteko lankidetza-proiektuak egiteko interesa jasota, proiektu-modalitate berri hori txertatu zen, eta lehentasun berri bat ezarri zen, ahalik eta erakunde gehienei sarbidea emateko.

Gipuzkoako zentro eta unibertsitateek teknologia kuantikoetan egiten duten ikerketa handituz joan da, eta enpresen eta enpresetako I+G unitateen proiektuek aurrera egin dute. Horri esker, teknologia horiei heltzean planteatzen diren aukerak eta mugak ezagutu ahal izan dira, irekitzen diren aukerak aztertu ahal izan dira eta enpresa-esparruaren eta zientzia aurreratuaren arteko distantziak gainditu dira. 2023an, IBM-Quantum Basque Center abian jarri zen, Basque Quantum aliantzaren esparruan. Mundu osoan dauden ordenagailu kuantikoetako bat ekarriko du Donostiara, eta horrek ikerketa eta poloaren hazkundea bultzatzea ekarriko du berekin.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Modificar las bases reguladoras y aprobación de la convocatoria 2024 de las subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 9 de abril de 2024:

Uno de los pilares fundamentales de actuación recogidos dentro del nuevo plan estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el periodo 2024-2027 es el fomento de una economía innovadora y competitiva, creadora de oportunidades, que garantice puestos de trabajo de calidad y desarrolle sectores industriales de futuro. Algunas de las tecnologías que conformarán los nuevos negocios y que se integrarán en las empresas de hoy para hacerlas competitivas en el futuro están ahora dando sus primeros pasos. Este es el caso de las tecnologías cuánticas, incipientes, pero con un gran potencial en muchos ámbitos y sectores. En este marco se sitúa el reto de hacer de Gipuzkoa un polo de tecnologías cuánticas, lo que supone generar conocimiento, disponer de infraestructuras que permitan estar en la vanguardia, tener personas capaces de abordar las dificultades que unas tecnologías incipientes traen consigo y contar con emprendedores o empresas abiertas a trabajar para rentabilizarlas.

En este camino se ha venido avanzando en los últimos años. En septiembre de 2021 se firmó un protocolo de actuación con el Gobierno Vasco para impulsar el Polo de Tecnologías cuánticas en San Sebastián, y ese mismo año, se definió una estrategia para avanzar hacia el objetivo planteado y se apoyaron proyectos de investigación. En 2022 se dio un paso más, impulsando que esas tecnologías llegaran al tejido empresarial. Con esa finalidad principal se puso en marcha el programa Gipuzkoa Quantum, orientado en primera instancia a apoyar proyectos de I+D de empresas o sus Unidades de I+D empresarial en colaboración con una entidad experta en tecnologías cuánticas. Además, si el presupuesto lo permitía, se abrió la posibilidad de presentar proyectos individuales realizados por centros de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI). En 2023, recogiendo el interés detectado por realizar proyectos de colaboración entre estos centros y entidades expertas en cuántica, se incorporó esta nueva modalidad de proyectos y se estableció una nueva priorización que permitiera dar acceso al mayor número de entidades posible.

La investigación en tecnologías cuánticas por parte de los centros y universidades guipuzcoanas ha ido creciendo, y los proyectos de empresas y unidades de I+D empresarial han ido avanzando, lo que ha permitido conocer las oportunidades y las limitaciones que se plantean al abordar estas tecnologías, explorar las posibilidades que se abren y salvar las distancias entre el ámbito empresarial y la ciencia avanzada. En 2023 se ha puesto en marcha el IBM-Quantum Basque Center, en el marco de la alianza Basque Quantum, que traerá a Donostia uno de los pocos ordenadores cuánticos que existen en el mundo, con lo que ello conlleva en términos de impulso a la investigación y al crecimiento del Polo.

EK\CV GAO-I-2024-02705

2024an, Gipuzkoa Quantum Programari jarraipena eman nahi zaio, enpresak kuantikora hurbiltzeko proiektuei lehentasuna emateko asmoari eutsiz. Horretarako, enpresen, enpresetako I+G unitateen eta erakunde adituen arteko lankidetza-proiektuak bultzatuko dira. Aurreko deialdietako proiektu batzuk amaitu direnez, deialdi honetan aukera ematen da enpresa horiek beren esperientziari jarraipena eman diezaioten proiektu berriak aurkezteko, eta, beraz, aurreko deialdian ezarritako muga kentzen da, proiektu horien lehentasuna baztertzen baitzuen. Bestalde, eta kontuan hartuta ETEek ahalegin handia egin behar dutela teknologia horiek txertatzeko beren jarduera oraindik gutxi aztertu den arlo batera hurbiltzerakoan, mota horretako enpresentzako laguntzaren ehunekoa handiagoa izatea planteatzen da.

Horregatik guztiagatik, beste deialdi bat jarri da abian, Gipuzkoa teknologia kuantikoen polo bat izan dadin urratsak ematen jarraitzeko, I+G proiektuak babestuz. Oinarrien aldaketa bat jasotzen da, alde batetik, ETEei laguntza berezia emango diena, mota horretako enpresetarako laguntzak handituz, eta bestetik, laguntzak eskuratzeko lehentasunak eguneratuko dituena, helburu nagusiari eutsiz, hau da, lankidetza-proiektuak babestea, lehenik enpresara bideratutakoak eta, ondoren, ZTBESko zentroetakoak, eta, azkenik, zentro horiei ikerketan aurrera egiteko aukera emango dieten banakako proiektuak.

Dirulaguntza ildo hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago. Izan ere, Diputatuen Kontseiluaren 2024ko otsailaren 20ko erabaki bidez, aipatutako Plan Estrategikoa luzatu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024. ekitaldirako luzatutako Aurrekontu Orokorretan jasotako dirulaguntzei dagokienez, 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin eta onetsi bitarte.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Aldatzea Gipuzkoa Quantum programako dirulaguntzen oinarri arautzaileen 8.4. eta 8.9. oinarriak erabaki honen I. eranskinean ezarritako baldintzetan. Aldatzen diren oinarriak Diputatuen Kontseiluak 2022ko uztailaren 26an onetsi zituen (2022ko abuztuaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 165. zk.), eta ondoren Diputatuen Kontseiluko 2022ko irailaren 20ko erabakiaren bidez (2022ko irailaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 185. zk.) eta 2023ko otsailaren 21eko erabakiaren bidez (2023ko martxoaren 8ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 46.zk.) aldatu ziren.

*Bigarren.* Onestea dirulaguntza hauen 2024ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* Baimentzea 975.000 euroko gastua, deialdi hau gauzatzeko, honako kontu sail hauen kargura:

1.0520.200.770.00.02.2024: 276.000 €.

1.0520.200.781.00.12.2024: 309.000 €.

5.0520.200.770.00.02.2025: 156.000 €.

5.0520.200.781.00.12.2025: 234.000 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Laugarren.* Erabaki honek onetsitako oinarri arautzaileen aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun beretik aurrera izango du eragina.

En 2024 se quiere dar continuidad al Programa Gipuzkoa Quantum, manteniendo su espíritu de dar prioridad a los proyectos de aproximación empresarial a la cuántica a través de proyectos de colaboración entre empresas y Unidades de I+D empresarial y entidades expertas. Dado que hay proyectos de convocatorias anteriores que han finalizado, en esta convocatoria se abre la posibilidad a que estas empresas den continuidad a su experiencia con la cuántica presentando nuevos proyectos, por lo que se quita la limitación establecida en la pasada convocatoria que relegaba la prioridad de estos proyectos. Por otra parte, y dado el esfuerzo que las PYMEs deben hacer para incorporar estas tecnologías a la hora de aproximar su actividad a un área tan poco explorada aún, se plantea que el porcentaje de ayuda para este tipo de empresas sea mayor.

Por todo lo anterior se pone en marcha una nueva convocatoria, que permita seguir dando pasos para que Gipuzkoa sea un polo en tecnologías cuánticas, a través del apoyo a proyectos de I+D. Se recoge una modificación de bases que, por un lado, apoye de forma especial a las PYMEs, incrementando las ayudas para este tipo de empresas, y que por otro, actualice las prioridades para el acceso a las ayudas, manteniendo el objetivo principal de apoyar proyectos en colaboración, en primer lugar aquellos orientados a la empresa y después los de los centros de la RVCTI, y finalmente dando entrada a proyectos individuales que ofrezcan a estos centros la posibilidad de avanzar en la investigación.

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES), prorrogado por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de febrero de 2024 para las líneas de subvenciones contempladas dentro de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa prorrogados para el año 2024, en tanto se procede a elaborar y aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Modificar las bases 8.4 y 8.9 de las subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 165 de 30 de agosto de 2022), y modificadas posteriormente por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 20 de septiembre de 2022, (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 185 de 29 de septiembre de 2022) y por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 21 de febrero de 2023 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 46, de 8 de marzo de 2023), en los términos establecidos en el anexo I que se acompaña al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2024 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 975.000 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las partidas:

1.0520.200.770.00.02.2024: 276.000 €.

1.0520.200.781.00.12.2024: 309.000 €.

5.0520.200.770.00.02.2025: 156.000 €.

5.0520.200.781.00.12.2025: 234.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* La modificación de las bases reguladoras que se aprueba en virtud del presente acuerdo producirá efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2024-02705

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2024ko apirilaren 11.—Idazkari teknikoa, ez dagoenez, Iñaki Egizurain Nebreda, Lege Aholkularitza eta Koordinazioko atalburua. (2705)

I. ERANSKINA

*2022ko uztailaren 26an Diputatuen Kontseiluak onestutako (2022ko abuztuaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 165. zk.) Gipuzkoa Quantum dirulaguntza programaren oinarri arautzaileen aldaketa. Aldatzen diren oinarriak Diputatuen Kontseiluko 2022ko irailaren 20ko erabakiaren bidez (2022ko irailaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 185. zk.) eta 2023ko otsailaren 21eko erabakiaren bidez (2023ko martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 46.zk.) aldatu ziren.*

Dirulaguntza programa horren 8.4 eta 8.9. oinarri arautzaileak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

*8. oinarria. Dirulaguntzen portzentajeak eta gehieneko zenbatekoak.*

8.4. Gainera, honako maximo hauek ezartzen dira:

— Enpresentzat: kostuen % 25 enpresa handiak badira, % 35 enpresa ertaina bada eta % 45 enpresa txikia bada, kuantikan aditua den enpresaren edo ZTBESren zentroaren azpikontratazio-kostuak izan ezik, horiek % 75era irits baitaitezke.

— Arloan esperientzia duten enpresa laguntzaileentzat, diruz lagun daitezkeen kostuen % 50.

— ZTBESko zentroek diruz lagun daitezkeen kostuen % 100era iritsi ahal izango dira.

— Proiektu bakoitzeko gehienez 120.000 euroko dirulaguntza emango da lankidetza proiektuetarako, eta banakako proiektu bakoitzeko gehienez 80.000 euro.

8.9. Enpresek edo enpresetako I+G unitateek lankidetzan aurkeztutako proiektuak lehenetsiko dira. Beraz, lehenengo eskaera horiei erantzungo zaie. Enpresa edo I+G unitate bakoitzeko proiektu bat baino gehiago aurkezten bada, baloraziorik handiena duenari emango zaio laguntza lehenik.

Laguntza eman ondoren aurrekonturik badago, enpresen eta enpresetako I+G unitateen lankidetzako bigarren proiektuak hartuko dira kontuan.

Eskabide horiek kontuan hartuta, ZTBESko zentroek lankidetzan aurkeztutako eskaerak baloratu eta kontuan hartuko dira.

Azkenik, esleitu gabeko aurrekontu-soberakinik badago, ZTBESko zentroen banakako proiektuei erantzungo zaie.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de abril de 2024.—El secretario técnico, por ausencia, el jefe de sección de Asesoramiento Jurídico y Coordinación, Iñaki Egizurain Nebreda. (2705)

ANEXO I

*Modificación de las bases reguladoras del programa de ayudas Gipuzkoa Quantum, aprobadas por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 165 de 30 de agosto de 2022), y modificadas posteriormente por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 20 de septiembre de 2022, (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 185 de 29 de septiembre de 2022) y por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 21 de febrero de 2023 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 46, de 8 de marzo de 2023).*

Se modifican las bases reguladoras 8.4 y 8.9 del citado programa de ayudas, quedando redactadas de la siguiente manera:

*Base 8.ª Porcentajes y cuantía máxima de las subvenciones.*

8.4. Además, se establecen los siguientes máximos:

— Para las empresas: el 25 % de los costes subvencionables si se trata de empresas grandes, el 35 % si es una empresa mediana y el 45 % si la empresa es pequeña, con excepción de los costes de subcontratación de la empresa experta en cuántica o del centro de la RVCTI que podrán alcanzar hasta el 75 %.

— Para las empresas colaboradoras que tengan experiencia en el área, el 50 % de los costes subvencionables.

— Los centros de la RVCTI podrán alcanzar el 100 % de los costes subvencionables.

— La subvención máxima por proyecto para los proyectos en colaboración será de 120.000 € y la subvención máxima por proyecto individual de 80.000 €.

8.9. Se priorizarán los proyectos presentados por empresas o Unidades de I+D empresarial en colaboración, por lo que se atenderá primero a estas solicitudes. En caso de que se presente más de un proyecto por empresa o Unidad de I+D empresarial, se concederá en primer lugar la ayuda al que tenga mayor valoración.

Si una vez atendidas existe presupuesto, se considerarán los segundos proyectos de empresas y Unidades de I+D empresarial en colaboración.

Atendidas estas solicitudes, si aún hay presupuesto, se valorarán y se atenderán las solicitudes presentadas por los centros de la RVCTI en colaboración.

Finalmente, y si existe remanente presupuestario sin adjudicar, se atenderán los proyectos individuales de los centros de la RVCTI.

EK\CV GAO-I-2024-02705

II. ERANSKINA

*Gipuzkoa Quantum programako laguntzen 2024ko deialdia.*

*1. Xedea eta oinarri arautzaileak.*

Gipuzkoa Quantum programako dirulaguntzen 2024ko deialdia egitea.

Gipuzkoa Quantum programaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluaren 2022ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez onartutakoak dira, (2022ko abuztuaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 165. zk.). Oinarri arautzaile horiek Diputatuen kontseiluak aldatu ditu 2022ko irailaren 20ko erabakiaren bidez (2022ko irailaren 29ko Gipuzkoako Aldzakari Ofiziala, 185. zk.), 2023ko otsailaren 21eko erabakiaren bidez (2023ko martzoaren 8ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 46. zk.) eta baita erabaki honen bidez (deialdi honekin batera argitaratzen dira).

*2. Finantzaketa.*

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 975.000 eurokoa da, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0520.200.770.00.02.2024: 276.000 €.

1.0520.200.781.00.12.2024: 309.000 €.

5.0520.200.770.00.02.2025: 156.000 €.

5.0520.200.781.00.12.2025: 234.000 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*3. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. Epe hori amaituko da 2024ko ekainaren 13an 13:00etan.

*4. Jarduerak hasteko eta gauzatzeko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. Epe hori amaituko da 2024ko ekainaren 13an 13:00etan.

*5. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.*

a) Erantzukizunpeko adierazpena eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, ez dagoela Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusten diren onuradun izateko eragozten duten egoeratan eta ez dagoela 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23. artikuluaren 2. zenbakiak adierazitako debeku-kasuetako baten mende.

b) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreren edo baliabideen adierazpena, estatutakoekin bateraezinak diren dirulaguntzak aipatuz.

c) Erakunde onuradun izateko 2.1 oinarrian jasotako baldintzak betetzeari buruzko adierazpena.

d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko egiaztapenaren justifikazioa, hala badagokio.

ANEXO II

*Convocatoria 2024 de las ayudas del Programa Gipuzkoa Quantum.*

*1. Objeto y bases reguladoras.*

Convocar para el año 2024 las subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum.

Las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones del programa Gipuzkoa Quantum son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022, publicadas (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 165, de 30 de agosto de 2022), modificadas por acuerdos de Consejo de Gobierno Foral de 20 de septiembre de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 185, de 29 de septiembre de 2022), de 21 de febrero de 2023 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 46, de 8 de marzo de 2023) y por este mismo acuerdo (publicadas junto con la presente convocatoria).

*2. Financiación.*

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 975.000 euros con cargo a las siguientes partidas:

1.0520.200.770.00.02.2024: 276.000 €.

1.0520.200.781.00.12.2024: 309.000 €.

5.0520.200.770.00.02.2025: 156.000 €.

5.0520.200.781.00.12.2025: 234.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*3. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo para la presentación de las solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará a las 13:00 horas del 13 de junio de 2024.

*4. Plazo de inicio y ejecución de las actuaciones.*

Las actuaciones objeto de la subvención deben iniciarse a partir de la presentación de la solicitud de ayuda y se concluirán antes del 28 de junio de 2025.

*5. Documentación a presentar con la solicitud.*

a) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de no estar sometida a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujer.

b) Declaración, en su caso, de las subvenciones, ingresos o recursos que la entidad solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, procedente de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con las solicitadas.

c) Declaración del cumplimiento de las condiciones para ser entidad beneficiaria que se recogen en la base 2.1.

d) Justificación de la acreditación en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, en su caso.

EK\CV GAO-I-2024-02705

e) Proiektuaren aurrekontu xehatua, aurreikusitako gastuen izaera zehaztuta. Funtsezko ikerketako, ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko zereginei dagozkien zehaztuko da. Ez dira 200 eurotik beherako gastuak aurkeztuko. Proiektuaren guztizko aurrekontuaz gain, lankidetza-proiektu baten kasuan, parte hartzen duen erakunde bakoitzari dagokiona zehaztuko da.

f) Proiektuaren memoria, proiektuaren helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren faseen, jardueren edo zereginen deskribapena jasoko dituena. Zeregin bakoitzerako, funtsezko ikerketa, ikerketa industriala edo garapen esperimentala den zehaztuko da. Memoriak planing bat izango du, eta bertan, hasiera- eta amaiera-datak jasoko dira. Proiektuan lan egingo duten pertsonak eta haien profila eta esperientzia zehaztuko dira. Lankidetza-proiektuen kasuan, erakunde bakoitzak proiektu horretan duen zeregina azalduko da.

g) Erakunde parte-hartzailearen edo parte-hartzaileen deskribapena. Lankidetza-proiektuen kasuan, labur-labur deskribatuko da enpresa parte-hartzaileen jarduera, eta enpresa edo erakunde laguntzaileari eskatzen zaion esperientzia justifikatuko da, kuantikari dagokionez. Halakorik izanez gero, erakundeak euskararen erabilera sustatzeko egiten dituen ekintzen deskribapena eta enpresak gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari dagokionez duen estrategia jasoko dira. 6. oinarrian ezarritako irizpideak baloratzeko behar den informazio guztia emango da.

*6. Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Dena den, erakunde interesatuei ondoko bitartekoren baten edo batzuen bidez ere jakinarazteko saioa egingo da: ebazpena departamentuko web orrian sartuz, posta elektronikoz, telefonoz.

Onuradunak 10 egun naturaleko epea izango du argitalpenaren datatik aurrera dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa, berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

Onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, aurrekontu kreditua agortu delako dirulaguntza jasoko ez duten entitateak itxarote zerrendan geldituko dira, emandako dirulaguntzetakoren bati uko egingo balitzaio.

*7. Borondatezko itzulketa.*

Onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako foru diputatuari 16.4 oinarrian zehazten den moduan.

*8. Zerga ondorioetarako kalifikazioa.*

Deialdi honen bidez lagundutako enpresa-proiektuek kalifikazio txosten teknikoa jaso ahal izango dute zerga ondorioetarako.

e) Presupuesto detallado del proyecto, en el que detalle la naturaleza de los gastos previstos. Se especificará si corresponden a tareas de investigación fundamental, de investigación industrial o de desarrollo experimental. No se presentarán gastos inferiores a 200 euros. Además del presupuesto total del proyecto, en el caso de un proyecto en colaboración, se especificará lo que corresponde a cada una de las entidades que participan.

f) Memoria del proyecto, que contenga los objetivos del mismo y la descripción de las fases, actividades o tareas necesarias para alcanzarlos. Para cada tarea se especificará si se trata de investigación fundamental, de investigación industrial o de desarrollo experimental. La memoria contendrá un planing en el que consten las fechas de inicio y finalización. Se especificarán las personas que trabajarán en el proyecto y su perfil y experiencia. En el caso de los proyectos en colaboración se explicará el papel de cada entidad en el mismo.

g) Descripción de la entidad o entidades participantes. En el caso de los proyectos en colaboración se describirá brevemente la actividad de las empresas participantes y se justificará la experiencia en cuántica exigida a la empresa o entidad colaboradora. Se incluirá, de haberlas, una descripción de las acciones que realice la entidad para promover el uso del euskera, así como la estrategia de la empresa en relación con la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres. Se aportará toda la información necesaria para la valoración de los criterios establecidos en la base 6.ª

*6. Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación será de 6 meses, a contar a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de 2015 de Procedimiento Administrativo Común, la resolución de concesión será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación. En todo caso, se procurará informar a las entidades interesadas también mediante alguno o algunos de los siguientes medios: inclusión de la resolución en la página web del departamento, correo electrónico, teléfono.

La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días naturales a partir de la fecha de publicación para aceptar la subvención que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

Las entidades que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de beneficiarias, no hayan obtenido subvención por haberse agotado el crédito presupuestario, quedarán en lista de espera para el caso en que algunas de las subvenciones concedidas quedaran sin efecto por renuncia.

*7. Devolución voluntaria.*

En el caso de que la entidad beneficiaria proceda a la devolución voluntaria, dirigirá un escrito a la diputada foral del Departamento de Promoción económica y proyectos estratégicos, tal y como señala la base 16.4.

*8. Calificación a efectos fiscales.*

Los proyectos de empresa apoyados a través de esta convocatoria podrán recibir informe técnico de calificación a efectos fiscales.

EK\CV GAO-I-2024-02705